

KANALAK

KOMUNIKAZIO ETA BANAKETA KANALAK:

Web-orria

Web orria moda gustatzen zaion jendeari zuzenduta egongo da, gure informazioa eta modari buruzko informazioa lortzeko. Gure web orriak 3 atal izango ditu: Lehenengoa "kooperatzeak", hau da, gurekin kooperatzen duten denden publizitatea eta informazioa (denden deskontuak adibidez) argitaratuko ditugu eta egiten ditugun kooperatze guztiak. Bigarrena "dendaren informazioa" gure web orrian gure enpresari buruzko informazioa emango dugu (deskontuak, denda berriak irekiz gero ere ...). Azken atala "gaur egungo moda" deituko da, hau da, modan ezagunak diren pertsona batzuen dokumentalak eta elkarrizketak jarriko dira, eta modan ateratzen diren produktu famatuenen informazioa argitaratuko dugu. Denda guztiek komunikazio kanal berak izango dituzte, ez bakoitza komunikazio kanal konkretu bat.

Facebook

Facebook-en argazkiak igoko ditugu modari buruz eta erabiltzaileen zalantzak erantzungo ditugu. Facebooken gure informazioa eta postak 30 urte baino gehiago duen jendeari zuzenduta egongo da. (iragarkiak)



Instagram

Instagramen iragarkiak jarriko ditugu ere eta gure postak 20 urte baino gehiago duen jendeari zuzenduta egongo dira. Erabiltzaileen zalantzak erantzungo ditugu eta beraiekin interaktuatzen saiatuko gara quiz-ak eginez adibidez. Gainera, Donostiako influencer batek gure produktuari buruz publizitatea egingo du, (Iban Garcia).



Egunkariak

Diario Vascon iragarki bat jarriko dugu ere, Euskadin dagoen egunkari famatuena delako eta heldu askok irakurtzen dutelako. Iragarki horrek orri erdia beteko du.



Erakusketak

Urtean erakusketa bat egiten saiatuko gara, horrela gure produktuaren publizitatea lortzeko eta Donostian modan gustatzen zaion jendeari erakartzeko. Ez zaigu dirurik kostatuko.



Salmenta eta banaketa kanalak

Gure salmenta eta banaketa kanalak Internet izango dira, hain zuzen ere, gure produktua erosteko Interneten bidez harremanak egingo ditugu telefono baten bidez. Salmenta kanalari dagokionez ere, Interneten bidez izango da, han gure bezeroek erabilitako gure produktuari buruz dituzten zalantzei buruz hitz egin ahalko dute gurekin han utziko baitugu telefono bat gurekin hitz egiteko: **943505050**. Bezeroak gure produktuen iritzia utzi ahal izango dute ere.